



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILE ETA DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAK EGINIKO KONTSULTA**

### **LEA/AVC 307-CONS- 2018 ESPEDIENTEA**

#### **Osoko bilkura**

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, bokala

Enara Venturini Álvarez, bokala

Maria Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2018ko azaroaren 15ean, eta honako txosten hau eman du.

### **I. KONTSULTAREN XEDEA ETA LEA-REN ESKUMENA**

1. 2018ko uztailaren 23an, Gipuzkoako Barne Diseinatzaile eta Dekoratzzaileen Elkargo Ofizialaren (Elkargoa) idatzia sartu zen LEAren erregistroan. Horren bidez, kontsulta bat egiten zuen Elkargoak, jarraian zehazten diren gertakarietan eskumena arrazoirik gabe murriztu ote den zehazteko eta, hala badagokio, gomendioren bat eman daitekeen edota arau-hauste espedientea izapidetu daitekeen jakiteko.
2. Elkargoak dioenez, Donostiako Udalak, Hirigintza Jasangarriko zinegotzi ordezkariaren 2018ko maiatzaren 21eko ebazpenaren bidez, lokalaren erabilera etxebizitza-erabilera aldatzeko obra-lizentziari uko egin dio. Ukoa, Hirigintzako zuzendariordearen 2018ko apirilaren 16ko txostenaren arabera, honetan oinarritzen da:

«...etxebizitza berriak eraikitze edo gaitzeko proiektuen gaineko idazketa-eskumena goi-arkitektoek dute, eta aparejadore, arkitekto tekniko edo beste teknikari batzuek, aldiz, dagoeneko badauden etxebizitzetako obra-proiektuen idazketaz eta zuzendaritzaz arduratzeko baimena dute, betiere obra horiek etxebizitzaren erabilera-baldintzak, bolumena, eraikitako azalera eta abarrak aldatzen ez badituzte, edo egitura, fatxada edo inguratzaileetan, elementu komunetan eta bestelakoetan eraginik ez badute...

Beraz, ezin liteke baimendu gaur egun etxebizitza ez den lokal baten erabilera aldatzeko eskaera, etxebizitza-erabilera emateko, eskumenik ez duen egile baten proiektuan oinarrituta, aurretik aipatu denaren arabera».



3. Elkargoak gaineratu duenez, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak sistematikoki aurkaratzen ditu administrazioarekiko auzien epaitegian goi-arkitektoak ez diren tituludunen proiektuetan oinarrituta eman diren etxebizitza-gaikuntzarako udal-lizentziak. Horrela, lokaletan etxebizitzak gaitzeko emandako udal-lizentzien ebazpenak aurkaratu ditu (151/2016 eta 55/2017 obra handiko espedienteak), bai eta etxebizitza bat bitan banatzeko udal-lizentzia ere (141/2017 obra handiko espedienteak). Era berean, Eibarko Udalaren 2018ko urtarrilaren 18ko ebazpena aurkaratu du; horren bidez, lizentzia ematen da lokal batean etxebizitza bat gaitzeko.
4. Elkargoak uste du udalen lizentziak ezestea lehia askearen aurka egon daitekeela.
5. Txostena LEAk eman du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko lehia askearen inguruko gaien aholku-organo gisa, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen 3.5 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez<sup>1</sup>.

## II. KONTSULTAREN AZTERKETA LEHIAREN ARLOKO ZUZENBIDEAREN IKUSPUNTUTIK

6. Lehenik esan behar da LEAk dagoeneko eman duela iritzia barne dekoratzaileek eta diseinatzaileek obra-proiektuak egiteko eta horiek zuzentzeko duten gaitasun teknikoaren inguruan<sup>2</sup>. Txosten horretan, LEAk hau ondorioztatu du:

«29. Barnealdean dekoratzaileek eskumena dute dekorazio-proiektuak egin eta idazteko, baita dekorazio-lanak zuzentzeko ere, baldin eta ez badiete eragiten nahitaezko administrazio-lizentziak jaso dituen proiektu onartuan zehaztutako egiturazko elementu erresistenteei, eraikuntzaren konfigurazioari edota obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei.

30. Halaber, arkitekto-titulua, arkitekto teknikoaren titulua edo aparejadore-titulua duenak ere egin ditzake barnealdean dekoratzaileek gauzatzeko eskumena duten jarduerak.

(....)

32. Udalek, udalerrian eginiko obra txikiak kontrolatzeko ahalmenak erabiliz, ez dituzte kanpoan utzi edo baztertu behar horien obra-proiektuak egin ahal izateko eta obra horiek zuzendu ahal izateko legezko eskumenak dituzten profesionalak. Administrazio Publikoak merkatuetan esku hartzen duenean lehia askea bermatu behar du eremu guztietan eta jarrera neutrala eduki behar du.

<sup>1</sup> 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.

<sup>2</sup> LEA txostena, barne dekoratzaileek eta diseinatzaileek obren proiektuak egiteko eta obrak zuzentzeko gaitasun teknikoa edukitzeari buruzkoa.

[http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu\\_informes/adjuntos/228\\_INF\\_ORME\\_DECORADORES\\_web\\_eu.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/228_INF_ORME_DECORADORES_web_eu.pdf).



7. Txosten hori Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei bidali zitzaien, horren berri izan dezaten eta ondorio egokiak izan ditzan. Era berean, LEAren web-orrian argitaratu da.
8. LEAk, hiru lurralde historikoetako dekoratzaileen elkargoek emandako datuen bidez<sup>3</sup>, egiaztatu du udal gutxitan gertatu dela Euskal Autonomia Erkidegoan barne-dekoratzaileek sinatutako obra-proiektuen eta/edo jardueren baimenak ezestea, eta kopuru txikian, gainera. Beraz, ezin da ondorioztatu jardueraren erreserba baten aurrean gaudenik, eraikuntza-esparrua modu gehiegian hedatzen denik interiorismo-esparruaren kontura.
9. Gogoeta hori kasu honetan egiaztatzen da. Baiki, Elkargoak adierazi du Donostiako Udalak ezetsi egin duela lokal bati dekoratzaile batek sinatutako proiektuan oinarrituta etxebizitza-erabilera emateko egin beharreko aldaketaren obra-lizentzia. Halaber, egiaztatu du Udalak berak lokaletan etxebizitzak gaitzeko obretarako lizentziak eman izan dituela beste batzuetan (151/2016 eta 55/2017 obra handiko espedienteak), bai eta etxebizitza bat bitan banatzeko udal-lizentzia ere, hirurak ere dekoratzaileek sinatutako proiektuetan oinarrituta egonda. Era berean, Eibarko Udalak, 2018ko urtarrilaren 18an obra-lizentzia eman du lokal batean etxebizitza gaitzeko, kasu horretan ere dekoratzaile batek sinatutako proiektuarekin.
10. Bestalde, obra-lizentziak ezestea Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen (LDL) debekuetatik bat izan ote daitekeen ebazteari dagokionez, gogorazi behar da legeak kolusio-jokabideak izatea debekatzen dizkiela enpresei (1. artikulua), bai eta nagusitasunezko abusua eta egintza desleialen bidez lehia askea faltsutzea ere (3. artikulua).
11. Bestalde, LDLk, 4.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera, lehiaren defentsa egitearen arloko erkidego-xedapenen behin-behineko aplikazioari kalterik gabe, debekuak ez zaizkie aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokabideei.
12. Nabarmendu behar da debeku horiek enpresei zuzentzen zaizkiela (alegia, merkatuan diharduten eragile ekonomikoei), ez erakunde publikoei.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2012ko uztailaren 12ko epaiak (CompassDatenbank kasua) dioenaren arabera<sup>4</sup>:

<sup>3</sup> Ikusi LEA txostena, barnealdeko dekoratzaileek eta diseinatzaileek obren proiektuak egiteko eta obrak zuzentzeko gaitasun teknikoa edukitzeari buruzkoa. 20. paragrafoetik 28ra.

<sup>4</sup>2012ko uztailaren 12ko epaia. Europako Erkidegoko Justizia Auzitegia 2012\186. Kasua: Compass-Datenbank GmbH vs. Republik Österreich.



«(35) Jurisprudenziaz ondorioztatzen da, lehiaren arloko Batasunaren Zuzenbideko xedapenak aplikatzearen ondoreetarako, enpresa bat jarduera ekonomikoa gauzatzen duen edozein entitate dela, entitate horren estatutu juridikoa eta finantzaketa modua edozein direla ere (1991ko apirilaren 23ko epaia, Höfner eta Elser, K-41/90 , Bild. I-1979 or., 21. atala, eta 1993ko otsailaren 17ko epaia, Poucet eta Pistre, K-159/91 eta K-160/91 , Bild. I-637 or., 17. atala). Gogora ekarri behar da, jurisprudenzia sarria duenez, jarduera ekonomikoa merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko edozein jarduera dela (2002ko urriaren 24ko epaia [EJBA 2002, 299], Aéroports de Paris/Batzordea, K-82/01 P, Bild. I-9297 or., 79. atala; 2008ko uztailaren 1eko epaia [EJBA 2008, 148] , MOTOE, K-49/07 , Bild. I-4863. or., 22. atala, eta 2011ko martxoaren 3ko epaia, AG2R Prévoyance, K-437/09 , Bild. I-0000. or., 42. atala). Hala, bada, Estatuak berak edo Estatuako organismo batek enpresa gisa jardun dezake (ikus 1985eko martxoaren 20ko epaia, Italia/Batzordea, 41/83, Bild. 873. or., 16. ataletik 20ra). (36) Botere publikoaren ahalak erabiltzea dakarten jarduerak ez dute, ordea, izaera ekonomikorik, EBFT Tratatuen eskumenari buruzko arauak aplikatzea justifikatzen duenik (ikus 1985eko uztailaren 11ko epaia, Batzordea/Alemania, 107/84, Bild. 2655. or., 14. eta 15. atalak; 1994ko urtarrilaren 19ko epaia, SAT Fluggesellschaft, K-364/92 , Bild. I-43. or., 30. atala, eta MOTOE, lehen aipatua, 24. atala)».

13. Bestalde, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2013ko otsailaren 28ko epaiak –Ordem dos Técnicos Oficiais de Contas kasua– hau dio:

«(40) Justizia Auzitegiaren jurisprudenziaren arabera, jarduera bati ez zaizkio EBFT Tratatuen eskumenari buruzko arauak aplikatu behar, bere izaera, hura arautzen duten arauak eta bere helburua aintzat hartuta, truke ekonomikoen esferatik kanpo badago edo botere publikoaren ahalak erabiltzea dakarren jarduera bada (ikus, bereziki, Wouters eta beste batzuk epaia, lehen aipatua, 57. atala eta aipatutako jurisprudenzia)».

Auzitegi Gorenak doktrina hori jakinarazita, 3525/2016 epaian zuzenbideko bigarren oinarrian hau ezartzen du<sup>5</sup>:

**«(...) botere publikoaren ahalak erabiltzea dakarten jarduerak lehiari buruzko arauak aplikatzeko eremutik kanpo daude eta merkatuan operadore ekonomiko gisa badihardute baino ezingo dira horien subjektu arau-hausletzat jo».**

### III. ONDORIOA

14. Hirigintza-lizentzia administrazio-egintza baimentzaile bat da, eta, horren bidez, hirigintza-administrazioak modu arautuan kontrolatzen du obren, lurzoruen erabileren edo edozein hirigintza-eraldaketaren legezkotasuna. Hori dela eta, kasuan kasuko toki-administrazioak, obra-lizentziak ematean edo ezestean, botere publikoaren ahalak erabiltzen ditu, eta ez dihardu eragile ekonomiko gisa; beraz, kasu horretan, ez dagokio LDLa zuzenean aplikatzea.
15. Hala ere, LEA honek barne-dekoratzaileek eta -diseinatzaileek obren proiektuak egiteko eta obrak zuzentzeko konpetentzia teknikoa edukitzeari buruz emandako

<sup>5</sup> Auzitegi Gorenaren 3525/2016 Epaia, Administrazioarekiko Auzietarako Sala- ECLI: ES:TS:2016:3525.



txostenean aipatu duenez, administrazio publikoak, merkatuetan esku hartzen duenean, eremu guztietan bermatu behar du lehia askea, eta posizio neutrala izan behar du. Horrela, bada, udalek, beren udalerrian egiten diren obra txikiak kontrolatzeko ahalak baliatuta, ezin dituzte baztertu edo kanpoan utzi nahikoa lege-ahalmen duten profesionalak.

- 16.** Hala gertatuz gero, edozein interesdunek, bere eskubideak edo interes legitimoak urratu direla uste badu, hala badagokio, erreklamazioa jar dezake (EE, 24. art.).